

Joxe
Arratibel
Zurutuza


*Kontalari aparta, ahozkotasunaren
gordailu paregabea*

(1923-2011)

BIDeGILEAK

Egilea:

Miel A. Elustondo



JOXE ARRATIBEL ZURUTUZA

(1923-2011)

Ataun, Sariarte Garakoa

Joxe Arratibel Zurutuza (Ataun, 1923 – Estibaliz, 2011). Fraide beneditarra izan zen Estibalizen (Araba). Kontalari aparta, ahozkotasanaren gordailu paregabea, aspaldiko *Kontu zaharrak* (1980) lanean erakutsi zigunez. Iturri beretik, hainbat lan argitaratu zituen: *Mari Xor eta beste*, *Dirua neurtzeko ontzia*, *Erramun eta Mirentxu*, *Sorginen urrezko maindirea*, *Izugarriak...* Lan guztiotan ere, modurik indartsu eta harrigarrienean ekarri zigun ahotik paperera gure arbasoen literatura.

Joxe Arratibel, desagertzeko zorian dagoen kontalarien espezieko kide miresgarria izan zen.

1923ko abenduaren 7an jaio zen Ataungo San Gregorioko Ergoiena auzoko Sariarte Garakoa etxean, Nafarroa aldera doan errepidean gora goazela, goieneko auzoan.

Manuel osaba eta Agustina izeba izan zituena aita-amaponteko, eta Joxek berak inoiz esan izan zuenez, haien izena jasoko zuen amabirjinaren egunaren bezperan, Kontzesioarekin, jaio izan ez balitz. Elizaren usadioak agintzen zuen, ordea, eta Jose Maria jarri zioten izena.





Ergoiena auzoa,
Ataunen

Bederatzi senidetan laugarrena izan zen Joxe. Margarita, Diego, Serafina, Epifania, Julia, Maria, Iñaki eta Mikaela izan zituen anai-arreba.

Aita mandazaina zuten, eta hiru mando-ekin ibili ohi zen batetik bestera ikatza menditik jaisten; edo egurra. Eta, esaterako, Jakatik Bilbora tximista indarra jartzeko behar zirenak ere ekarri zituen: burdina, kablea eta porlana. «Gure aita Aralarko mendietan lan egitera iritsi



Joxeren anaia Iñaki
eta honen emazte
Joxepa Zeberio



Sariarte
Garakoa
etxea.
Bertan
jaio zen
Joxe
Arratibel

zen, eta Iparraldera ere bai, Zuberoako kontuak ekarri ohi zituen, behintzat».

Joxepa Zurutuza izan zuen ama, gazterik hila. Sariarte Garakotik bertara, Lauztie-rrekako alaba izan zen...

Garai hartan jende gehiegi bizi Ergoie-nan, nonbait, eta batzuek kanpora joan behar izaten zuten: mikelete, esate bate-rako, bidegin, morroi... Nesketan, berriz, asko, neskame. «Nik banituen hiru izeba [Asuntzion, Pakita eta Joxepa] eta ni bai-no arreba zaharragoa, neskame joanak. [Juan de Iturralde, Santillanako Marke-sarenean izan ziren neskame, Donostian eta Madrilen eta, tartean, Santanderren (Espainia) Santillana del Mar herrian bertan]. Geroago, beste bi arrebak ere halaxe joan zitzaizkidan. Baziren ere apaiz edo fraide joaten zirenak. Eta atzerrira

ere joan ohi zen jendea, Frantziara eta Amerikara... Nik bat ezagutu nuen, gure auzoan, Amerikara joan zena. Ez naiz gogoratzen nora, baina haren azken agurra bai, gogoratzen naiz. Familiakoak eta auzokoak han ginen autobusa hartu zuenean Beasaina tren hartzerara joateko. “Ondo ibili Ameriketara, eta nahi duzunean itzuli hona!”, esaten zion jendeak. Nik sei edo zazpi urte izango nituen baina oraindik gogoan ditut haren azken hitzak: “Ni banoa, eta Josefatera arte!”».


Sariarte baserrian igaro zuen haurtzaroa, jolas betean. «Gure etxe ingurua aukerakoa zen horretarako. Bazen ibai eder bat, baziren belardiak, baziren soroak... Auzoan, gainera, baginen bost edo sei kideko, eta gehienetan elkarrekin ibili ohi ginen, beti jolasean».

Jolasa zen mundu, nahiz eta eskolarik ere bazen. San Gregorioko eskolara hasi zen lehenengo, etxetik bi kilometrorra, eta oinez egin ohi zuen joan-etorria asteen sei egunez, hala goizez nola arratsaldez, bederatzietatik eguerdi arte, eta ordu bietatik bostak arte. Jai zituzten ostegun eta larunbat arratsaldeak. Urte bat besterik



ez zuen egin San Gregoriokoan, ondoren Ergoienan bertan zabaldu baitzuten eskola. Batean eta bestean, euskaldunak izan zituzten maisu. Gogoan zuen Ergoienan izan zuten irakaslea. «Martin maisua. Ergoienan bertan jaioa zen, urte askoan Bilbon maisu izandakoa. Jubilatu eta etxera itzuli zen. Karlista amorratua zen, eta Ezkio zalea. Etxe bateko bi gela bat egin eta hantxe erakusten zigun. Berak jarriak ziren liburu, koaderno eta gainerakoak. Hogeiren bat mutiko ginen». Gaztelaniaz zen eskola, eta han ziren bitartean galazia zuten euskaraz hitz egitea. Haatik, gizon eta maisu ona izan zela esan zuen beti Joxe Arratibelek. Gure bidegilearen

Sariarte Garakoa
sukaldean,
telebistako saioa
grabatu aitzin



Anaia Iñaki eta Kirmen Uriberekin, telebistarako grabatzera joana

anaia gazteena dugun Iñakik jakinarazi digunez, Martin Barandiaran zen erran delako maisua, Loidi etxekoa, Bilbon irakasle jardun ondoren jaioterriko Ergoiena eta Arrondo auzoetan erakutsi zuena.

KONTU ZAHAR GIROA

Zerutik jakina da Joxe Arratibel kontalari nabarmendu zena. *Kontu zaarrak* liburua ondu zuen 1980an, eta, ondoren, beste hainbat kontu zaharberritu zituen. Ipuin, istorio, mito eta legenda guztiak etxean entzun zituen Joxek haur garaian. «Batez ere negu aldean izaten zen, gauak luze zirenean. Etxeko denok biltzen ginen, baita auzoak ere, sukaldean. Artazuriketa giroa zen, eta orduantxe hasten ziren

helduak kontu zahar kontatzen». Batean, aita izango zen kontalari. Bestean, ama. Hurrera, auzokoren bat. Baina alde ikaragarria zegoen batek kontatu, edo besteak. «Ergoienan bagenuen auzo bat, itsu. Mikelete sartzeko lanetan ari zela galdu omen zuen ikusmena, meazulo batean ustekabeko leherketa bat izanda. Berak behin ere ez zigun esan nola itsutu zen... Hark dohain berezia zuen, kontalari aparta zen». Jendartea zen kontu zaharrak entzuten zituztenen artean, eta haietarik Joxek beste inork ez zuen izan itsu haren dohaina berritzeko ahala... Orduan entzun zituen hil artean lagun izango zituen ipuin miresgarriak: «Txerri beltza», «Ehiztaria eta bi txakur», «Etsai zaharra eta mendiko lehoia», «Mari Xor»...


LEHENENGO BIDALDIA LAZKAORA

Ataunek ondoan du Lazkao eta, bertan, beneditarren komentua, Beloketik etorriak baitziren. Hauek, garaiko ohiturari jarraiki, herriz herri, eskolaz eskola ibili ohi ziren fraidegai bila. Eta horrela errekrutatu zuten gure Joxe, artean hamar urte zituela. «Baina urtea besterik ez nuen egin nik Lazkaon. Txikia nintzela, edo osasun eskasekoa... etxera bidali ninduten». Hala ere, ordu arte ezagutu ez zuen mundua ikusi zuen urte hartan. «Arantzazun izan ginen behin, eta Txindoki, Beasain, Ordizia, Zaldibia, Olaberri eta beste zenbait leku ibili genituen. Urte hartan ez nuen gure amarik ikusi, ez nintzen etxeraino heldu! Aita bai, ikusi nuen noizetik noizera, bizikleta hartu eta Ordiziara joateko ohitura zuen-eta. Pasadizoan ni ikusten gelditzen zen».

Urtea egin eta etxera itzuli behar izan zuen Joxek, osasun makalekoa zelakoan. Hala ere, *frailekume* ezizenaren jabe egin zen harrezkero auzoko neska-mutikoen artean. Etxean iraun zuen itzuleran, eta etxean zela jaso zituen 1936ko Espainiako gerraren zipriztinak. «Ni ezaupidera iritsi nintzenerako baziren bizikleta hartuta Beasaina, Villafrancara edo Etxa-

rrira joaten zirenak. Emakumeak eta haurrak, etxean gelditzen zirenak, auzoko sukalderen batean biltzen ziren kartetan jokatzera... Baina gerrak ohitura guztiak aldatu zituen. Gure auzoan, hogeita bost edo hogeita sei familietatik hamalau edo hamabost joan ziren gerra hartara. Hiru edo lau han hil ziren... Behin, ordurako gerra hasita zegoen, San Gregorioko bikarioa atera zen gaixoren bati elizakoak eramatera. Akolitoa, beti bezala, aurretik zihoan farola piztuta eta txintzarria joz. Plazan soldadu sail bat zegoen eta apaiza eta akolitoa ikusi zituztenean, begira jarri ziren. Haietako inor ez zen belaunikatu, bertako jendeak ohitura zuen bezala eta, gainera, barre txikiren bat ere egin zuten. Orduan, bikarioa haiei begira jarri eta hots egin zien: “Denak belauniko Jaunaren aurrean!”. Bikarioa gizon gogorra zen, karlista amorratua, bere esana egitea nahi izaten zuen, baina soldaduak ez ziren mugitu ere egin. “Salatu egingo zaituztet zuek denok!”, esan eta aurrera jarraitu zuen».

Garaiko beste ohitura baten berri ere eman izan zuen inoiz Joxek, beti kontalari: «Ekaitz itxura handia hartu zuen zeruak, ilun-ilun jarri zen dena. Orduan, gure amandreak hartu zuen pertz bat eta han txinpartak jarri zituen sutatik hartuta. Gero, atarira joan zen eta pertzean jarri



zuen su hartara erramu hostoak botatzen hasi zen, Erramu igandean bedeinkatutakoak. Ondoren, San Joan egunean bedeinkatutako lore sailtxo bat bota zuen, eta, gero, Kandelario egunean bedeinkatutako kandela bat piztu eta kandela malkoak bota zituen sua zegoen pertzera. Orduan, ke beltz bat atera zen handik, zerura igoz. “Hori dena zertarako egiten duzu, amandrea?” galdetzean, beraren erantzuna izan zen: “Etsaia eta eguraldi gaiztorik hona etorri ez dadin”. Bedeinkatutako hosto eta haiek denak ondo gordeta eduki ohi zituen gure amandreak: erramua eta loreak ganbarako habetik zintzilik, eta kandela eta ur bedeinkatua kutxa batean sartuta, eta gauza bedeinkatu horiek denak, gutxi edo gehiago, beti eduki izan dira gure etxeetan, gaur arte».


BIGARREN BIDADIA LAZKAORA

Hamasei urte zituela, berriz ere bila etorri zitzaizkion beneditarrak. Ordurako, Lazkaoko beneditarrek abiarazia zuten eskola. «Inguruko mutiko asko joan ohi zen hara. Batxilerra ere erakusten zuten, nonbait. Gainera, mutil sail bat hartzea

erabaki zuten fraideek, fraide izan zitezten. Horrela, baten bat nitaz gogoratu zen, eta bila etorri zitzaizkidan. Haiekin ikasten ari zen nire lehengusu bati eskatu zioten niri esateko, ea joango al nintzen, hitz egitera besterik ez bada ere». Joxek aitari esan zion fraideek zer asmo zerabilten. «”Herorrek ikusi, umea!” “Joan hadi, hemen adina lokatz ez duk izango eta!”», aitaren erantzuna. Eta halaxe ikusten dugu Joxe —«1939an, gerra bukatutako garaian», haren anaia Iñakik esan digunez—, Ergoienatik Lazkaora, bizikletan. Beneditarren etxea lehengoa zen beti, baina aldatua zen. Lehenengo ezagutu zuenetik zeharo berrituta ikusi zuen etxea. Eliza erakutsi zioten, esanez han errezatzeko lekua izango zuela. Goiak eta beheak, atzeak eta aurreak erakutsi zizkioten, eta, azkenik, inprentara eramán zuten. «Lanean ari ziren bizpahiru fraide han. Hango makinak ikusi nituen eta txoratuta geratu nintzen. Behin ere ez nuen halakorik ikusi. Hango hotsa, eta traka-traka, traka-traka! etengabea. Eta paperak dena eskribituta botatze hura! “Gauza zoragarria hemen lan egitea!”, esan nion neure buruari». Orduantxe hartu zuen fraidetzarako asmoa Joxek. «Gau hartan, berriz etxean, ez nuen lorik egin. Erdi ametsetan joan zitzaidan denbora, “traka-traka, traka-traka!”

hots hura beti gogoan». Egunak igaro eta bila joan zitzaizkion fraideak Lazkaotik, haiekin joango ote zen. «Baietz esan nien, konforme nintzela, baina gure aita-rekin hitz egin behar zutela. Gauzak ez zeuden erraz gurean: soldadu ari zen anaia zaharrena, arreba bat neskame, aitajaunak laurogei urte eta zaharturik bizi genuen etxean, gaixorik genuen ama, gainerako senideak ni baino gazteago ziren... Ni joanez gero, aita bakarrik utziko nuen lanean». Fraideek aitarekin hitz egin zuten, eta aitaren hitzak orduan: «Bera besterik ez dut baserria eramateko, niri laguntzeko, baina hemen inor ez da betiko, biharko egunari ere begiratu beharra dago... Berak zuekin fraide joan nahi baldin badu nik ez diot kontra egingo».

Egun hartan, aita-semeen elkarrizketa. Aitak: «Fraideek han nahi haute. Heuk ikusi zer nahi duan. Lehen ere joan hintzen, eta atzera etorri hintzen. Orain joatekotan, joan hadi herorrek nahita. Gaur edo bihar etxetik atera beharko haiz [Joxe ez baitzen maiorazkoa]. Hi orain joanda ere, konponduko ahal gaituk!». 1940ko urtarrilaren zortzian sartu zen Joxe komentura. Aitaren azken agurra: «Hi, Joxe! Komentuko bizitzak ondo hartzen ez bahau, edo osasunak laguntzen ez




Joxe, nobizio Lazkaon. Txarito lehengusina, aita, Joxe eta arreba Epifania



Nobiziatu garaiko argazkiak, beti Lazkaon, artean meza esan gabeen





badik, badakik etxeko atearak zabalik gelditzen direla». Urteak igarota ere, gogoan izan zituen beti Joxek aitaren hitz haiek: «Badakik etxeko atearak zabalik gelditzen direla». Horrela abiatu zen Joxe Arratibel bizi berri baterantz...

Komentura heldu, eta harrera, anaia Narziso atezainak: «Hemen zara, hemen zara... Sartu, sartu!... Zer, honako asmoan?». «Asmo horretan», Joxe gazteak. «Urte askotarako!», Narzisoren hitzak, laster zuzendu zituenak, zer edo zer gaizki esan izan balu bezala: «Urte askotarako, ez. Izan dadila betiko!». Horra Joxek, aitaren hitz amultsuekin batera, behin ere ahaztu ez zituen hitzak: «Izan dadila betiko!».

Joxe Arratibelek Lazkaon igaro zuen 1940tik 1956ra bitarteko aldia. Lehenengo, ikasketak burutzeko izan zen. Huraxe Joxeren lehenengo ustekabekoa, komentura sartu eta hiru-lau egunera etxeko nagusiak deitu zuenean. Han hasi zitzaion, irakurtzen ba ote zekien galdezka. Joxek, baietz, ibilia zela eskolan, Lazkaora etorri arte, hain zuzen. Nagusiak, orduan: «Hobeto ikasi behar duzu, estudiatu egin behar duzu». «Estudiatu? Ez, ez ni inprentan lan egitera etorri naiz», Joxek. «Inprentan lan egiteko ere, ondo leitzen


eta eskribitzen jakin behar duzu. Ez dago beste biderik». Hurrengo egunean bertan hasi zitzaion nagusia Joxeri eskola ematen. Astebete igaro eta latinarekin hasi ziren. Tokitara joan ziren Joxeren esperantzak: «Akabo nire inprenta ametsak! Behin ere ez nuen han lan egin!». Latinarekin batera etorri ziren, bata bestearen ondoan, frantsesa, greziera, matematika, geografia, geometria, dotrina... Euskara ez beste denak. «Hitz bat ere ez genuen euskaraz egiten. Lehenengo bi-hiru urtean galarazia izan genuen, gaztelaniaz hobeto ikastearren».

Lau urte, Humanitate ikasketak egin zituen. Ondoren, Nobiziatua, urte bat. Eskaintza egitea zegokion orduan. Filosofia eta Teologia ikasketak ere egin zituen, fraidegaiak hala behar zuenez. Tartean izan zen amaren heriotza. «Nobiziatuan nintzen hil zenean. Oso gaixorik zegoen garaian ere ikusi ahal izan nuen. Hiletara ere joan nintzen. Beste toki askotan nobizioak ez ziren ezertarako ere komentutik irteten. Ezta hiletara joateko ere!».

Ikasketak egin bitartean, bestelako egitekorik ere izan zuen Joxek Lazkaoko komentuan. «Lan gogor bat egin nuen: mutikoen zaindari izan nintzen. Hogeita hamar ere baziren, hamar eta hamabost



Joxe Arratibelek Arabako
Estibalizen igaro zuen bizialdi
gehiena



Alvaro
Matxinbarrena
artistaren
begietan

urte bitartekoak. Egun guztia haiekin ibili behar, eta, askotan, goizeko ordu bitan jaikiz ibili eta gero, fraideekin gaueko errezoak egitera. Eta, egunez, mutiko haiek estudiantzen ari zirela, loak hartzen ninduen, arratsaldez batez ere». Logura haiek gorabehera, oso lotia izan zela zioen Joxek. *Muxarra* izengoitiaren jabe egin zen sasoi batean...

Ikasketak buruturik, meza esan zuen hogeita sei urte zituela, 1949an. Oso argal eta erdi gaixorik iritsi zen egun handira –ikterizia, esan izan zuen berak–, baina sendagileak agindutako botika eta sendagaiak hartu eta laster osatu zen. Gaztetako makalaldi eta gorabeherok ezik, oso osasun onekoa izan zen beti Joxe.

NOBIZIO, KONTU ZAHAR KONTARI

Esan dugunez, fraide bidean zelarik, mutikoak zaintzea izan zuen eginbeharretan bat Joxe Arratibelek. Lazkaoko nagusi Rufino Mujikak gogoan du oraindik. «Hamar bat urtekoak ginela, zaindari genuen Joxe. Zenbat aldiz, gu geldirik egoten ez eta arrosarioa errezatu behar! Eta Joxek: “Eta txintxo portatzen bazarete, kontu zaharra kontatuko dizuet gero”. Eta gu isilik eta esaneko portatzen ginen, ondoren etorriko zen Joxeren kontu zaharraren zain. Garai hartan, bestalde, artoa bastante ereiten zen Lazkaon, eta, jakina, hura jaso eta eskola zuritu behar izaten da. Eta horretan



ere jartzen gintuen Joxek. Gu igual hasiko ginen bata besteari oskola tiraka, eta Joxek orduan, betiko hura: “Eta txintxo portatzen bazarete, kontu zaharra kontatuko dizuet gero”. Eta gu isilik, kontu zaharraren zain. Eta berdin mantzanila biltzera joaten ginenean ere, udan. Ez ginen mantzanilata askotan joango, baina behin edo behin bai. Eta, horrela, egun batean bat eta hurrengoan beste bat, geroan publikatu zuen *Kontu zaarrak* liburuko ipuin guztiak entzun genituen guk garai hartan... Haiek

entzun zain egoten ginen gu umeok! Hirurogei urte ere joan dira ordudanik».

Garai hartan entzun zituzten Joxeren kontu zaharrak gaur egun Estibalizko nagusi den Bittor Mujikak, eta Estibalizen bertan fraide kantore fin den Juan Luis Plazaolak ere. «Orduan ez zegoen ez irrati eta are gutxiago telebistarik. Udan eguna luze izaten zen eta akordatzen naiz nola jarduten zuen Joxek guri kontu zaharrak kontatzen», dio Juan Luisek.



1956, Venezuela, Caracas

Sasoi beteko gaztea Caracasen,
San Juan de Avila, 1956-59


1956an izan zen. «Elurte txarra. Izoztea ere handia. Pinuak eta denak izoztu zituen», oiroitzen da Iñaki Arratibel. Joxek bestelako gogoramenak zituen urte hartan. Kontatzen zuenez, 1956an bisita izan zuten fraideek Lazkaon. Beste fraide bat zen, jatorriz alemana, baina beneditarra hura ere. Caracasetik zetorren, fraide bila. Lazkaon apaiz sail handia zen ordu-rako, gazte sasoikoak denak, eta denen aurrean esan omen zion kanpotik etorritakoak Lazkaoko nagusiari: «Aita, guk behar duguna daukazue zuek hemen: fraide gazteak. Guk ere badugu zuei laguntzeko modua, diruz». Lazkaoko nagusiak ez zion gaizki iritzi, eta boluntarioak eskatu zituen. Bik ez zuten zalantzarik izan. Joxe zen haietarik bat. Alemaniako St. Otilien

kongregazioko beneditarrek abadia handi bat irekia zuten Caracasen, eta fraide gazte premian ziren. Lazkaon bi, Beloken hiru... zenbait lagun errekrutatu zituen. Joxerekin hitz egitean, esan zion: «Aita, primeran ibiliko zara han!». «Hemen ere ez nago gaizki!», Joxek. «Bada, han hobeto!», alemanak. «Hortaz, benetan ona izan



«Karakastik 1958ko agorrean», dio argazkiaren atzeko aldeak

Fraide gazte,
Caracasen



behar du hark!». Bai izan ere. «Gero ikusi nuenez, Caracas oso ona izan zen niretzat, bai gorputzarentzat, bai arimarentzat».


Mundua ikusi zuen berriz Joxek. Hura ez zen Lazkao, ez Francoren azpiko Euskal Herria. Hiru urte zoragarri egin zituen han. Hala ere, behin haserrea izan zuen hango fraide aleman batekin, Hitlerren alde, haren ideia batzuk defenditzen hasi zenean. «Nik kontra egin nion, esan nion hura ez zegoela ondo, Hitlerren alde hitz egitea, alegia. Momentuan ez zen isildu, baina gero bai, barkamena eskatu zidan».

Caracasen, parrokia handiaren ardura zuten beneditarrek. 40.000 lagun ziren ingu-

ruan. Bazuten, gainera, ikastetxea. Irakasle jardun zuen lehenengo urtean Joxek, baina ez zen zeharo gustura. Ondoko bi urteetan parrokia lanean aritu zen, laguntzaile, bateko meza, besteko kofesio, noiz arrosario, noiz oliodura, jaunartze, kofradia, gazte elkarte... Esku bete lan, baina gogo onez bete zuena.


MARTIN UGALDE

Eta, Caracasen zela noizbait, idazteari ekin zion. Koaderno bat osatu ere zuen, azal-urdina, idazkun hauxe ageri zuela: «1958'garen urtean Arratibel'tar benediktino apaizak emana Caracas'en». Martin Ugalderi zion emana Joxek. «Martin Ugalde eza-guna zen han, aldizkari bateko zuzendaria zen... Petrolio konpainia batentzat eginen zuen lan, eta hura ikusten izan ginen behin, bisitan. Bai petrolio lantegi hura ikusten eta bai Martin Ugalde bera bisitatzan. Ni orain ez naiz gogoratzen zer dela eta idatzi nuen koaderno, Amezketako Perrandoren kontuak, eta ez dakit zergatik emango nion koaderno Martini, baina eman nion behintzat. Nik uste ez ziola interes handikoa iritzi nik idatzitakoari eta halaxe bueltatu zidala koaderno hori».



Martin Ugaldere utzi zion koadernoan. Bertan jarri zituen lehenbizikoz zurian beltz umetan entzundako ipuinak

Koaderno hartara isuri zituen, lehenbizikoz, umetako Ataunen entzundako kontu zaharrak. Hasteko, «Perrandoren zorrak» ageri du izenburuan, eta badu hitzaurrea ere: «Zenbat aldiz ez dira zure eskuetara erori, irakurle agurgarria, Amezketako Perrandoren esanak edo eginak norbaitek txukun asko idatziak! Baña bear dizut esan, gizon aundi oien gertaera guztiak ez dirala agertuak izan. Gertaera aue-tako bat da nik orain zure eskuetan jarri nai nukeana, ta ez uste izan nik asmatua dala, ez orixe!, iturri onetik ateratakoa



Koadernoaren lehen orrialdeetako bat

da. Perrando ezagutu ta beraren inguruan bizitzeko zoriona izan zutenak itzez itz esana da...». Idazle nahia nabari zuen hitzaurretik.

Uda beriko ariatsalde eda

batez Exindoki edo Larrunari ko gain gainean
negea, bi begiak ondo zabaldua, Guipuzkoa
ko txoko guztietara begira. Uria edentaruena!
Beinere ez da nere burutik juango ikuski-
zun arin oroipena! Au unition ikusten
da Donostia, badala egdala; ibarrak bat
egiten du zeru urdinarekin.

Abendi guztiak baseri txuriz estaliak
dande; bazter guztiak landurak dira ludiako
txoko eder outan; lur apur bat dau txikian,
ez da ez otaririk ez lardirik ikusten.

Mi orela goraturik negeola, arraska ots
bat entzuten dut atzeko aldean; itzultzen naiz
ta orduntze inistenda aitor zar bat nere outora.
Izerditan dago gizajoa. Abakil on bat du eskuan.
Loro bat galtzatoriaz ta ariarekin bizkaruan. At-
zai baten aurrean nago beaz. Gizon bikaina
izango zan garaiari; orain asko makurtua da
go ta ala ere ezda txikia.

Exapel mudi batek estaltzen dio burua.
Apegi zabaldua da; amabost bat eguneko
bizara ortze murrabit. Euzeko alkaridora zu

ri edera soinean, emazteak jopia bear bada.
neko galtza urduriak jastur ditu, belarraz
tik artularako galzurditan sartuta. Beinari
kin berak egindako abarrak oinutan, goai
zeakin lobuta. Ez du besterik gizajoa!
Mi beregana itzuli ordubio: "Laino
ariatsaldeon dizula" agur egiten dit.

- Baita zuri ere alaxen dizula, edera dago
erantzuten diot.

- Bai bai, edera, onera igo ezkerre beintzat,
lanak.

- Garaiari ere asko igoko zinan bada zu onera, ez


- Bai orixe! Beintzat orain aibat izerdi
gabe bai, nere semea!" ta, apate, esertzen a
tur zapi balezkin kopetako izerdia iguztiaz
jarraitzen du bereala: "Ez dezun bear ba
inistuko, baina onera igota nago ni, nere
kar onekin, (eskua sorbaldara eramanaz)

pi ariako ari, au beriko sarkun artan.
rai artan genduan gub indara, garrai art
- Aitorre bear dizut, aibua, oraingo ga
zuek zeru sasoiari zurduten bezelako ino
ez daukagula. Ara ni gaur, nere ogei
tan, lari lari, bi edo iur aldiz atseginaz

Koadernoaren
beste orrialde
batzuk

Koadernoan, bestalde, orri artean galdua, argazki bat, Jose Antonio Agirreren ondoan, beste fraide gazte bat ere bai bertan. «Caracaseko euskal etxean ezagutu nuen Jose Antonio Agirre. Ez ginen hara askotan joaten, urtean behin edo bitan, San Inazio egunez edo horrelakoren bat zenean, besterik ez. Eta, behin, joan gara

eta hantxe Agirre lehendakaria! Agurtu genuen, hitz batzuk ere egingo genituen, eta argazkia. Handik urte batzuetara oso ondo etorri zitzaigun argazki hura, Parisen. Hiru urte egin genituen Caracasen, eta orduan hemengo nagusiek atzera erreklamatu gintuzten eta bueltan etorri behar izan genuen. Hala ere, bueltako bidaldia



Jose Antonio Agirre lehendakariarekin,
Caracaseko euskal etxearen festa batean

guk nahi genuen bezala antolatzeko aukera izan genuen eta New Yorken, Parisen eta Erroman izan ginen Lazkaora etorri baino lehen. Eta, Parisen, Agirre bisitazera joan ginen. Zaindariak ez zekien gu zertan ginen, eta urte batzuk lehenago Caracasen egindako argazki hura erakutsi genion, Agirreri erakusteko esanez. Berehalaxe hartu gintuen».

1959, ITZULERA


Caracaseko hiru urteak egin eta Lazkaora itzuli zen, fraideari zegozkion lanetan. Baten batzuek gogoan zuten Joxeren kontalaria sena, eta euskal kultura berriz ere pizten ari zen garaian, esan ere zioten kontatu ohi zituen kontu zaharrak idatzi behar zituela. Joxe ezezkoan zen: «Niri ez zait kontu horiek idaztea ateratzen. Kontatu bai, baina

idatzi...». Eta grabatuko zizkiotela esaten ziotenean ere, ezetz: «Ez nuke asmatuko ondo esaten». Gaiak ez zuen aurrera egin.

Lauzpabost urte Lazkaon igaro, eta Estibalizera agindu zioten gero. Han zela,



Beti izan zuen
etxekeekin lotura,
senideen ezkontzak
eta gainerako bisitak
tarteko



KONTU ZAARRAK

JOSE ARRATIBEL

EDITORIAL LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

Kontu zaarrak
liburuaren lehen
edizioa

berriz joko zuten atean, kontu zaharrak eske. 60ko hamarkadaren amaiera alde-ra zen, Jose Maria San Sebastian *Latxaga*, apaiza, Estibalizen izan zen, elizgizon asko bezala, gogoeta egin eta atsedean hartzera. Bazuen, ordea, bestelako arrazoirik ere: Aita Mauro Elizondoren eskuetan

ziren Sabino Aranaren zenbait eskutitz argitaratzea zuen asmo. Latxaga Estibalizko egunetan zela, bateko eta besteko berriketa artean, Joxe Arratibelek kontu zaharretarako zuen jaiaren berri eman zioten. Latxagak interesa erakutsi zuen, eta, horrela, Principe de Viana erakundearen euskarazko gehigarrian publikatu zen Joxe Arratibelen lehenengo kontu zaharra, Goñiko zaldunarena.

ELIZA ETA GIZARTEA

1974ko alean ageri da lehenengo legenda hori. Abiapuntua izan zen. Laster zen Latxaga gehiagoren eske, aurretik Joxeri askok egin zioten eskari bera eginez. Ez dakigu inoiz idatziko zituen kontu zaharrak, orduko egoera politikoak eliza bera zipriztindu izan ez balu. 1974ko otsailaren 24an, Bilboko gotzain zen Antonio Añoverosek pastoralara irakurri zuen. Eskutitzak *Kristautasuna, herrientzako salbazio mezua* zuen izenburu eta, bertan, Euskal Herriak bere identitatea garatzeko zituen zailtasunen inguruan ari zen. Tarteka, honela zioen:

Uno de los problemas que dañan más seriamente la convivencia ciudadana en el País



Joxe Arratibel, Estibalizen,
«laneko jantzian»

Vasco y que afecta igualmente a la buena marcha de nuestra Iglesia diocesana, es el, así llamado, problema vasco. ¿En qué consiste dicho problema?

Reduciéndolo a lo esencial, puede expresarse de esta manera: mientras unos grupos de ciudadanos, aunque con matices distintos, afirman la existencia de una opresión del pueblo vasco y exigen el reconocimiento práctico de sus derechos, otros grupos rechazan indignados esta acusación y proclaman que todo intento de modificar la situación establecida

constituye un grave atentado contra el orden social. [...]

El pueblo vasco tiene unas características propias de tipo cultural y espiritual, entre las que destaca su lengua milenaria. Esos rasgos peculiares dan al pueblo una personalidad específica, dentro del conjunto de pueblos que constituyen el Estado español actual.

El pueblo vasco, lo mismo que los demás pueblos del Estado español, tiene el derecho de conservar su propia identidad, cultivando y de-



Joxe Arratibel,
Goñin (Nafarroa).
Goñiko zaldunaren
kondaira argitaratu
zion Jose Maria
San Sebastian
Latxagak 1974an

Urtero, astebeteko
oporraldia egin
ohi zuen etxean,
Ataunen. Argazkian,
Txente mendian,
meza esaten



sarrollando su patrimonio espiritual, sin perjuicio de un saludable intercambio con los pueblos circunvecinos, dentro de una organización sociopolítica que reconozca su justa libertad.

Sin embargo, en las actuales circunstancias, el pueblo vasco tropieza con serios obstáculos para poder disfrutar de este derecho. El uso de la lengua vasca, tanto en la enseñanza, en sus distintos niveles, como en los medios de comunicación (prensa, radio, TV), está sometida a notorias restricciones. Las diversas manifestaciones culturales se hallan también sometidas a un indiscriminado control.

La Iglesia, para anunciar y hacer presente la salvación de Cristo, en esta situación concreta

de la diócesis, tiene que exhortar y estimular para que se modifiquen convenientemente [...] las situaciones en nuestro pueblo [...].

Pastorala ez zen ezkutuan igaro. Hautsak harrotu zituen. Zenbait eliztarrek elizak hustu zituzten pastorala entzuten ari zirela. Beste batzuk, hoska hasi zitzaizkien apaizei pastorala irakurtzen ari zirela. Gehienek, hala ere, ontzat eman zuten Añoverosen eskutitza eta, Bizkaian ez ezik, han eta hemen irakurri zuten elizgizonen. Estibalizko monasterioan ere irakurri zuen orduko abata nagusi zen Isidro Baztarrika ataundarrak. Ez alferrik, laster zuen salaketa jaso, edo poliziaren bisita. Baztarrika atxilo hartu zuten egun batzuetan, eta komentuko fraideen artean adin handikoena izaki, Joxe Arratibelek jaso zuen komentua zuzentzeko ardura. «Salaketaren ondoren, guardia zibilak etorri eta Dulantziko kuartelera eraman zuten Isidro. Han deklarazioa hartu, eta Langraiz-en eduki zuten preso hogeit bat egunez. Isidoren hurrena nintzen ni Estibalizko komentuan eta niri zegokidan etxeko ardura hartzea. Estutasun hartan, eta estutasun larri hartatik eskapatzeko, kontu zaharrak paperean jartzen hasi nintzen. Estresa nuen, eta kontu zaharrak idazten ari nintzela kendu nuen nire gainetik».



«Kontu zaarrak» liburua

Koadernoetan idatzirik ageri dira kontuok gaur egun ere, eta halaxe eman-go zizkion Joxek Latxagari. Honek testua editatu, liburuari itxura eman, argazki zenbait erantsi eta 1980an publikatu zuten liburua La Gran Enciclopedia Vasca

argialetxean. *Kontu zaarrak* liburuaren lehenengo edizioa izan zen. Irakurle azti askoren arreta jaso zuen lan hark eta, urteak igarota, ospea irabaziko zuen. Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi, Mitxel Murua, Dionisio Amundarain, Yolanda Arrieta, Joxe Martin Apalategi, Antton Olariaga, Pello Añorga, Jabier Kaltzakorta eta abarrek hitz ederrak izan zituzten beti Joxe Arratibelen lan harentzat.


Harrezkero, tantaka-tantaka izan bazen ere, Joxek ez zion utzi argitaratzeari. Berak idatziak izan, bestek orraztuak izan, azken unera arte argitaratu ziren haren lanak. Batean, haur eta gazte literatura bilduman argitaratu zituen Erein argialetxeak *Kontu zaarrak* liburuko zenbait kontu, bi liburutan: *Dirua neurtzeko ontzia*, eta *Mari Xor eta beste* (Erein, 1986).



Gidor Bilbaorekin.
Estimu handitan
zuen Bilbaok Joxe



Jabier
Kaltzakortarekin.
Joxeren lanari
miresgarri iritzi
zion euskaltzainak



Kontu zaharrak
liburua,
edizio
berrituan

Joxe Arratibel Udako Euskal Unibertsitatean,
Iruñean, 2000 urtearen inguruan




Joxeren lehenengo liburua ezagutu ez zutenek beneditarraren bidean jarri ziren, eta, urteak igaro ziren arren, 1995ean idazlearen lanen edizio berria argitaratu zuten, euskara batuan: *Kontu zaharrak* liburua izan zen, Antton Olariagaren marrazki zoragarri apaindua.


KONTU ZAHAR GEHIAGO

Ondoren, liburu gehiago etorriko ziren, haur eta gazte literatura bildumetan ikusiko zuten argia: *Erramun eta Mirentxu* (Erein, 1997), *Sorginen urrezko maindirea* (Erein, 1999) eta, azkenik, *Izugarriak* (Pamiela, 2008).

Tartean, Patxi Zubizarreta idazleak Joxeren zenbait ipuinen bertsioak ere egin zituen Erein argitaletxearen eskariz, hiru liburu argitaratuz 2001ean: *Sorgina eta emakume ederra*, *Etsai zaharra eta mendiko lehoia* eta *Txomin ipurdi*. Zubizarretak ondo baino hobeto ezagutzen zuen Joxe, haren bizitza eta obra. Esaterako, Zubizarretaren aitona Patxi Joxeren auzo berekoa zen, teilape berekoa. Bestalde, behin baino gehiagotan joan zitzaion Joxeri Estibalizera, behin eta berriz eta askotan izan zuen hizpide Arratibel...



Kontu zaharrak liburuari tiraka, lan txikiagoak ere argitaratu zituen Joxe Arratibelek



Patxi Zubizarretak Joxe Arratibelen zenbait ipuinen edizioa egin zuen 2001ean

Ularra artzaiak eta sugea

Bein artzaiak batetik suge-kurru bat
skuriz zuten, artzaiak eta sugea ibilirik
zegoela. Egan zuten pizteka batzuen
berari begira, eta, puztatu ere ezin
zuten, antzara artzaiak eta aca botza
baino gero erakitea egin zuten. Soltra
batzuen sartze ~~zuzen~~ eta bere txalo-
lana eraman zuten. Bein txalo-
ra ezkero, suare bagezore eta gatzura
ere bai, eta baxer suge orri bere
onera ikarri zuten.

Andik aurrera, artzaiak naito
gatzura ematen zion eta sugea
adibide zuzen zuten. Artzaiak ez
zuten txalola berriz erakitea
eta orregatik suge ura naito zuten
naito eta naito zuten txalola zuzen
zuten. Artzaiak oibuta zuten
berak txistu esituz zuzen
zuzerela, eta orduan zuzen ematen zion
gatzura.

Urreko mundura aldi bat zuzen
eta sugea aurrera egin zuten.

Sugea ibariz zuzen, artzaiak

Azkenik, Zubizarretak berak betikotu
zuen Joxeren irudia, haren ahotsa jaso
baitzuen 2005ean argitaratu zuen Urrezko
giltza CD-liburu ederrean. Bertan, testu
eta kanta askoren artean, Txomin Ipurdi
da entzungai, Joxe bera kontari.



Joxe Arratibelen lanak argitaratzen ari
zirela, eta aldi bertsuan, bestelako lanak

Arratibelen eskuidatzietako bat

ondu zituzten ikertzaile eta adituek gure
beneditarraren kontu zaharrak ikergai.
Joxe Martin Apalategi antropologoak,
esaterako, *Introducción a la historia oral:*
Kontu zaharrak, cuentos viejos (1987)
ikerketara eman zuen argitara, Joxeren bi-
zia eta lana abiapuntu harturik. Bestalde,
Julio Camarena Lauzirika ekonomialari
eta folkloristak *Catálogo tipológico del*
cuento folclórico español: cuentos maravi-
llosos argitaratu zuen 1995ean M. Cheva-
lierrekin elkarlanean eta, bertan, Joxeren
Txomin Ipurdi kontu zaharra jaso zuen.

Hurrena, Yolanda Arrieta idazleak
saikera bat plazaratu zuen Emakunde-
ren laguntzaz 2005ean: *Gatzaren atzetik.*
Emakumeen irudia euskal ipuin herriko-
etan: Mari-xor.

Xabier Etxaniz eta Manu Lopez Gase-
ni adituek ere beti hartu izan dute ain-
tzat Joxe Arratibelek egindako lana.
Etxanizen hitzetan, adibidez, Grimm,
Andersen edo Perraulten ipuinen ondoan
egon beharko lukete Arratibelen kontu
zaharrek, «etxean, eskolan edo dena de-
lakoan», eta Mariasun Landak, berriz,
honela zioen *Kontu zaharrak* liburuaren
edizio berritua argitaratu ondoko urtean,
1996an: «Mendeetan zehar, ahozko narra-
tibatik ailegatu zaizkigun ipuinak harri bi-




Joxe Arratibelen
zenbait lan,
haurrentzako
edizioan



1998 inguruan, Gasteizko Dato kalean, Antton Olariaga, Pello Añorga eta Floridako Kultura Etxeko zuzendari Teresa Castrorekin

txiak dira edozein literaturzale moderno-
rentzat, besteak beste, herriak gizakiaren
ametsik handienak nola irudikatu dituen
ikusteko aukera aparta ematen diolako...
Denborarik gabeko erresuman sortuak,

sutondo epelean mamituak eta esatari tre-
been bidez transmitituak, gugana heltzen
dira sotil baina indartsu, abereek eta lan-
dareek hitz egiten zuteneko garaiaren lilu-
ra sortuz [...] Era honetako lanak gehiago



Bizian argitaratu zuen azken lana

kontatu, landu, zabaldu beharko bailirate-ke gure eskola eta ikastoletan [...] Kontalari handi baten hitzaz gozatzeko aukera paregabea duzu, beraz, ahozkotasunaren xarma dastatzeko».

Joxe Arratibelen azkeneko liburuaren argitalpenaren karietara, berriz, honela zioen Jabier Kaltzakorta irakasleak:



Izugarriak liburuaren aurkezpen egunean, Pamielako ordezkari Joxanjel Irigarairekin

«Nik gutxi ezagutzen ditut horren modu naturalean jarduteko gai diren kontalariak. Badira ipuin bilketak, baina gutxi dira Joxerenak modukoak [...] Herri literatura aberatsekoak izanik ere, ez daukagu horrelako egilerik [...] Garai bateko aspaldi luzekoen kontalarien arrastokoa dugu Arratibel. Gaur egun, ordea, hola-koak urriegi dira, nik uste».



Joxe Arratibel Estibalizen

Azken fina

Munduak mundu irauten zuen bitartean, irakurlea liburuetan zen artean, Joxe zahartu egin zen, eta gaixotu. Alzheimer gaitzak jo zuen eta gero eta beherago egin zuen. Etorria eten zitzaion, adierazi nahi eta ezinean bizi izan zen lehenengo, gero eta baldarrago, dorpe, hurrena... 2010eko azaroaren 28an albiste izan zen, inor konturatu gabe monasteriotik irten eta errezo garaian azaltzen ez zela ikustean. Belar eta sasi artean eman zuen gaua, galdu eta biharamun arte ez baitzuten aurkitu, aski onik, hipotermia gorabehera! Ordurako, albistea emana zuten irrati-telebistek, esanez, galdutako fraideak kontuak idazten zituela euskaraz, eta aipu handiko idazlea zela euskaraz. Eta idatzi zuen Patxi Zubizarretak: «Estibalizeko monasteriotik fraile bat desagertu zela jakinarazi zidatelarik, egunkarian susmoa baieztatu baino ez nuen egin: Joxe zen, abiturik gabe, jertse huts batekin ibili bat egitera joan, eta gauak

eta izotzak harrapatu zutena... Adinean aurrera, Joxe gauean desagertu bide zen, baina ilunpetan ez zen bakarrik egongo: Txomin Ipurdi, Mari Xor, Lapurren Leizeko bi anaiak... izango zituen lagun. Eta harrigarriro bizirik topatu bazuten ere, eta gerora hil, beharbada gau hartan geratu zen betiko, berak putzutzat zuen ipuinen itsasoan. Alabaina, gertatu zen, argitasun gehiegizko tenore honetan, apenas inor ohartu zela galeraren handiaz».

Azaroan gau batez galdua, handik bi hilabetera, 2011ko urtarrilak 25 egun zituenean, betiko galdu genuen Joxe Arratibel.

Eta, hala ere, gurekin da, haren kontu zaharretarik bat irakurtzen dugun aldiro. Ez da agurrik, Jabier Kaltzakortak esan zuen moduan: «Agurrek tristura kutsua dute, eta nik ez dut Joxe inola ere despeditu nahi. Haren lana behar bezala baloratzea dagokigu, estimatzea».

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko eskaini duten informazio eta laguntzazatik, eskerrak eman nahi dizkiete pertsona hauei:

- Joxe Arratibel Zurutuzari
- Arratibel Zurutuza familiari
- Estibalizko fraide beneditarrei
- Patxi Zubizarreta Dorronsorori
- Jabier Kaltzakorta Elortzari

Zuzendaritza: Jerardo Elortza
Argitaraldia: 1.a, 2020ko urtarrilean
Ale-kopurua: 2.300 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: Centro Gráfico Ganboa, S.A.
Inprimaketa: Centro Gráfico Ganboa, S.A.
ISBN: 978-84-457-3526-8 (Lan osoarena)
978-84-457-3527-5
L.G.: LG G 00093-2020



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA